



Esp.kodea: 2021JDIR0007

Gaia: GRABAZIO LAGUNTZAK HERRIKO  
MUSIKA TALDEENTZAT 2021  
Hasiera eguna: 2021/07/12

## JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko uztailaren 15ean egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

### “CRAP musika taldea: disko bat editatzeko dirulaguntza eskatzea (2021JDIR0007)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Garapen Komunitarioaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“CRAP musika taldeak diru laguntza eskatu dio Udalarari disko bat editatzeko. Taldeak betetzen ditu 2021ko dirulaguntza deialdiaren baldintzak eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu du, tartean diskoaren edizio gastuei dagokion aurrekontua 1.909,38 € (BEZ barne).

Hori dela eta, hauxe proposatzen dio Garapen Komunitarioko Batzordeburu honek Tokiko Gobernu Batzarrari:

- **LEHENENGO.** 2021ko diru laguntza deialdiak finkatzen duenari jarraiki, CRAP musika taldeari 700,00 €ko laguntza onartzea, 1-0410-480-337-20-01 maketak grabatzeko diru laguntzen kontu sailaren kontura.
- **BIGARREN.** Dirulaguntza onartzean, CRAP musika taldeak konpromisoa hartzen du gazte txokoetako baten kontzertu bat doan eskaintzeko.
- **HIRUGARREN.** Gogoraraztea CRAP musika taldeari onartutako laguntza jasotzeko Udalarari diskoaren zazpi kopia entregatzeaz gainera, grabazio-edizio kostuen faktura ere aurkeztu beharra duela.
- **LAUGARREN.** Grabatutako diskoaren karatula editatuz gero, testua euskaraz azaldu beharko da bakarrik edo beste hizkuntza batzuekin batera, edonola ere, euskarazko testua bereziki nabarmendu beharko da.”

*Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.*

<b>Kodea</b>	BB21/00917	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON
<b>Data</b>	2021/uzt./20	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAM101.7.bipz
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM1017.bipz">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM1017.bipz</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





**Esp.kodea:** 2021JDIR0007

**Gaia:** GRABAZIO LAGUNTZAK HERRIKO  
MUSIKA TALDEENTZAT 2021  
**Hasiera eguna:** 2021/07/12

*Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.*

*Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurso aurkeztu dezakezu.*

Idazkaria

CRAP MUSIKA TALDEA  
AITOR BARBADILLO MELLADO  
GIPUZKOA ETORBIDEA, 1 - 4. IZ  
20500 ARRASATE/MONDRAGON

<b>Kodea</b>	BB21/00917	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON
<b>Data</b>	2021/uzt./20	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAM101.7.bipz
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM1017.bipz">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM1017.bipz</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

